

INES DIAZ DE VILAFRANCA ARZAMENDI, Zarauzko Udaleko idazkaria naizen honek

ZIURTATZEN DUT: 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran (akta onartzeko dago), Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki zuela:

**“HITZARMENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEAN, ZARAUZKO ITSASERTZEKO BIDEOMETRIA ESTAZIOAREN KUDEAKETARAKO.**

Espedientea: 2020H7990013

Zarauzko hondartza eta itsasertza hainbat erakunderen artean kudeatzen da, bakoitzak bere eskumenekoak diren eginkizunak beteta.

Eginkizunak partekatuak izanik, ezinbestekoa da erakundeen arteko elkarlana, eta bereziki Udalaren, Foru Aldundiaren eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren artekoa (Kosten Zerbitzua).

Bide horretan, oraingoan, Foru Aldundiak eta Udalak hitzarmena sinatzea proposatu dute, itsasertzeko bideometria-estazioen inguruan. Asmoa da Udalaren jabetzakoa den bideometria-estazio hori bi erakundeen artean kudeatzea eta GIPUZKOAKO ITSASERTZEKO BIDEOMETRIA FORU SAREAN sartzea.

Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatuak Foru Agindu bidez onartu zuen hitzarmen hori, 2020ko irailaren 7an.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak txostena egin ondoren, eta Ingurumen arloko zinegotziak hala proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez **ERABAKI DU**:

**Lehena.**- Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren eta Zarauzko Udalaren arteko hitzarmena onartzea, itsasertzeko bideometria-estazioa kudeatzeko.

**Bigarrena.**- Alkateak sinatuko du hitzarmena Udalaren izenean.

HITZARMENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEAN, ZARAUZKO ITSASERTZEKO BIDEOMETRIA ESTAZIOAREN KUDEAKETARAKO

Donostian, 2020ko abenduaren XXan

BILDU DIRA



Batetik, Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Foru Diputatua, GFaren ordezkari gisa.

Beste alde batetik, Xabier Txurruka Fernandez jauna, Zarauzko udaleko alkatea, erakunde horren izenean eta ordezkartzan.

## HONELA JARDUN DUTE

Nork bere karguko eginkizunak betez eta hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa elkarri aitortuz, eta, horrenbestez,

### AZALDU DUTE:

I.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, udalekin dituen eskumen subsidiarioak erabilia, 7/1985 Legean, apirilaren 2koan, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenean, ezarritakoak, 1985etik garbitu eta mantendu ditu Hondarribiko, Orioko, Zarauzko, Zumaiaiko, Debako eta Mutrikuko 16 hondartzak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren bidez. Horrez gain, laguntza ekonomikoa ematen du Donostiako 4 hondartzak garbitzeko eta mantentzeko. Kostaldean alorrean dituzten eskumenak erabiltzeko udalei emandako laguntza horretaz gain (Kostaldee buruzko 22/1988 Legea, 115. artikulua), Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, 2020-2023 Kudeaketako Plan Estrategikoari dagokionez, bere helburuen artean (52. zk.) Gipuzkoako hondartzak eta itsasertza modu jasangarrian kudeatzea du, horien erabiltzaileei zerbitzua kalitate eta segurtasun estandar erregularretan emateko, gune natural horiek erabat errespetatzeko moduan. Horri jarraituz, eta bere eskumenen esparruan, Aldundia lanean ari da hondartzekin eta kostaldearekin lotutako hainbat alderdi koordinatzeko, eta horretarako sustatu du lankidetzaren esparru bat hondartzen kudeaketan esku hartzen duten eragile guztiekin.

II.- Gainera, 18/2018 Foru Dekretuak, maiatzaren 29koak, *Klima Aldaketaren kontra Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050 - Gipuzkoa Klima 2050* onartu zuen. Estrategiaren barruan sartzen dira honako jarduerak: 3.3. *Klima aldaketa hondartzetan, itsasadarren eta dunen kudeaketan integratzea*, eta 7.2.3. *Itsas mailaren igoerak eta olatuek kostaldeko zonaldeetan duten eragina ebaluatzea eta aldaketa horretara egokitzeko jarduerak sustatzea*. Bi jarduerak horien helburua da sakontzea hondartzetan bilakaera behatzean, ahal beste informazio biltzeko aukera ematen duten zaintza tresnen bidez, eta datu serie tenporalak izatea, ebaluatu ahal izateko klima aldaketak zein eragin duen (itsas mailaren igoera, olatu handiak) hondartzetan eta kostaldean, oro har (hiri guneetan, eraikuntzetan, bide azpiegiturretan eta azpiegitura hidraulikoetan).

III.- Horregatik guztiagatik, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak erabaki du ikerketa tresna berriak ezartzea, hondartzak ezagutzekoak, dagozkien kudeaketa alorrean erabaki egokiagoak hartzeko aukera emango dutenak. Horretarako, *Gipuzkoako Itsasertzeko Bideometria Foru Sarea* sortu du eta, gaur egun, 9 estazio ditu. Lehenengo biak, Deba eta Hondarribiko hondartzetan kokatutakoak, 2018an jarri ziren abian pilotaje banari esker. Horiek ondo funtzionatzen zutela egiaztatu ondoren, 6 estazio berri jarri ziren beste horrenbeste hondartzatan (Saturraran Mutrikun, Itzurun eta Santiago Zumaian, Gaztetape eta Malkorbe Getarian, eta Antilla Orion), 2019ko martxoaren amaierarako. Estazio horiei Mutrikuko Ondarbeltzeko gehitu behar zaie, Bide Azpiegiturako Departamentuak 2019an egindakoa, eta 2020ra begira sarean sartuko dena. Estazio guztiek jasotzen dituzte irudiak, AZTI Fundazioak sortutako *KostaSystem* sistemak prozesatzen eta interpretatzen dituenak. Eskuratutako datuak ustiatzeak aukera ematen du aldizkako txostenak lortzeko aipatutako adierazleen inguruan: erabileraren kudeaketa (erabiltzaile kopurua eta eguneko okupazioa), korranteengatik eta olatuengatik arriskutsuak izan daitezkeen guneak, eta hondartzen morfologia eta klima aldaketaren eraginak (hondar lehorreko eta marearteko azalera eta kostaldeko lerroa).

IV.- Bere aldetik, Zarauzko Udalak, AZTI Fundazioarekin lankidetzan, kostaldeko bideometria estazio bat jarri zuen martxan 2010ean Zarauzko hondartza estaltzeko. Datuen ustiapenari esker, aldizkako txostenak lor daitezke honako hauei buruz: uholdeen eta okupazioaren kudeaketa, olatu eta korranteengatik arrisku eremuak, hondartzen morfologia eta klima aldaketaren ondorioak (hondar lehorreko eta marearteko azalera eta kostaldeko lerroa).

V.- Horrenbestez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak eta Zarauzko Udalak, aurretik azaldutakoa dela medio, honako lankidetzaren hitzarmen hau formalizatu dute, honako hauei jarraituz:

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA.- XEDEA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren (Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren bidez) eta Zarauzko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmen honen xedea da *Zarauzko itsasertzeko bideometria estazioa* kudeatzen laguntzea da.

#### **BIGARRENA.- ZARAUZKO UDALAREN BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK**

Udala da Zarauzko itsasertzeko bideometria estazioen jabea. Honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Energia horniketa bermatzea instalazioak behar bezala funtziona dezan.
- Kokatuta dagoen lurren etengabeko erabilgarritasuna ziurtatzea.
- Instalazioan egin behar den edozein lan ahalbidetzea, erraztea, neurriak gauzatzea eta dagozkion baimenak izapidetzea.

#### **HIRUGARRENA.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BETEBEHARRAK**

Hitzarmen honen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren bitartez, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Estazioen mantentze lanak egitea. Mantentze-lan horien aurreikusitako o kostua, urtean 4.000 eurokoa da. Ikusirik mantentze lan hauen izaera iraunkorra dela eta segidako traktukoa, 2020 urterako kredituak aurreikusi daira soikik, 4.000 €, gainerako ekitaldietako kredituak unean uneko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aurrekontu Orokorren onarpenaren menpe geratzen direlarik.

2020 urteari dagokion gastua aurrekontuko 1.0310.160.212.00.00.2020 kontu sailaren kargura ordainduko dira.

- Bideometria estazioetako datuen eskuratzea kudeatzea.
- Zarauzko udalarekin partekatzea datuen ustiapenaren ondoriozko txostenak (erabiltzaileen kopurua eta hondartzaren okupazio dentsitatea; segurtasuna bainuan; eta hareatzaren bilakaera morfodinamikoa, estazioaren datu seriearen hasieratik).
- Estazioetan moduluak edo funtzionalitateak zabaltzea planteatzea, egoki iritziz gero, AZTI Fundazioarekin lankidetzan.
- **Zarauzko itsasertzeko bideometria estazioa** Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak kudeatzen duen Gipuzkoako Itsasertzeko Bideometriako Foru Sarean integratuko da ondorio guztietarako, sarea osatzen duten gainerako estazioekin batera.

#### **LAUGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA**

Bermatzeko hitzarmen hau modu egokian garatzen dela, jarraipen batzorde bat sortu da, eta honako funtzio hauek izango ditu:

- Jarraipena egitea hitzarmen hau betetzean alderdiek egindako jarduketa guztiei.
- Sortu daitezkeen interpretatzearen eta betetzearen inguruko arazo guztiak ebaztea.

Jarraipen Batzordea Gipuzkoako Foru Aldundiko 2 ordezkari eta Zarauzko Udaleko 2 ordezkari osatuko dute.

#### **BOSGARRENA.- HITZARMENAREN XEDEAREN PUBLIZITATEA ETA DATUEN ERABILERA**

Bi aldeek elkarri onartzen diote bideometria estaziotik lortutako datuak, irudiak edo txostenak erabiltzeko eskubidea.

Zarauzko udalak egoki irizitako edozein euskarritan erabili eta sartu ahal izango ditu jarduera garatzean lortutako txostenak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak egin dituela adieraziz, **AZTI Fundazioaren laguntzarekin, hala badagokio.**



#### **SEIGARRENA.- ONDOREAK ETA IRAUPENA**

Hitzarmen hau betetzekoa izango da sinatzen den unetik aurrera, eta esku hartzen duten aldeak behartuko ditu. **4 urteko iraupena** izango du, beste 4 urtez luzagarria, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) artikuluan aurreikusitakoarekin bat eginez, aldeetako batek hitzarmena azkentzeko borondatea argi eta garbi adierazten ez badu.

Edozein kasutan, hitzarmenak haren arabera hartutako konpromisoak egiaz bete arte egongo da indarrean, seigarren klausulan xedatutakoa oztopatu gabe.

#### **ZAZPIGARRENA.- EZ BETETZEAK ETA SUNTSIARAZTEA**

Alderengatik ez baditu betetzen zenbatutako prozesuren batean bere gain hartutako konpromisoak, ez da automatikoki suntsiaraziko hitzarmena; edonola ere, beste aldea gaituko du hitzarmenean ezarritakoa zorrotz betetzeko eskatzera.

Halere, aldeetako batek ez baditu betetzen behin eta berriz hainbat prozesutan bere gain hartuak zituen konpromisoak, besteak eskubidea izango du hitzez hitz bete ditzala eskatzeko edo hitzarmenaren suntsiarazpena behartzeko.

#### **ZORTZIGARRENA.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Hitzarmen hau administratiboa da, eta ordenamendu juridiko-administratiboak arautuko du haren interpretazioa eta garapena.

Esku hartzen duen alde bakoitzak hitzarmen honen arabera bere gain hartutako konpromisoekin lotutako erantzukizunak bakarrik izango ditu.

Hitzarmena interpretatzean eta betetzean auzirik sortuz gero, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzio ordenaren ezagutzakoak eta eskumenekoak izango dira

Eta esandako guztiarekin ados daudelako, alderdiek izenpetu egiten dute, bi aletan, esandako egunean eta tokian,

**ZARAUZKO ALKATEA /  
EL ALCALDE DE ZARAUZ**

**INGURUMENEN ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO  
FORU DIPUTATUA /  
EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS  
HIDRÁULICAS**

Sin.: / Fdo.: Xabier Txurruka Fernández

Sin.: / Fdo.: José Ignacio Asensio Bazterra

*Hala jasota gera dadin eta dagokion lekuan eragina izan dezan, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, alkate jaunak ontzat emana, Zarautzen 2021eko otsailaren 2an.*

OE  
Alkatea

Idazkaria



INÉS DIAZ DE VILLAFRANCA ARZAMENDI, *Secretaria del Ayuntamiento de Zarautz,*

CERTIFICO: *Que la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 1 de febrero de 2021, cuya acta se encuentra pendiente de aprobación, adoptó el siguiente acuerdo:*

**“CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL Y EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ PARA LA GESTIÓN DE LA ESTACIÓN DE VIDEOMETRÍA LITORAL DE ZARAUTZ.**

Expediente: 2020H7990013

La playa y el litoral de Zarautz se gestionan entre varias instituciones, cumpliendo cada una las funciones de su competencia.

Al tratarse de funciones compartidas, la colaboración entre las instituciones es totalmente necesaria, y sobre todo entre el Ayuntamiento, la Diputación Foral y el Ministerio de Transición Ecológica (Servicio de Costas).

En ese sentido, la Diputación Foral y el Ayuntamiento han propuesto la firma de un convenio sobre las estaciones de videometría del litoral, con el objetivo de gestionar la estación de videometría propiedad del Ayuntamiento entre las dos instituciones e integrarse en la RED FORAL DE VIDEOMETRÍA LITORAL DE GIPUZKOA.

El diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas aprobó dicho convenio mediante Orden Foral del 7 de septiembre de 2020.

Previo informe y a propuesta del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, **ACUERDA:**

**Primero.-** Aprobar el convenio entre el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Zarautz para la gestión de la estación de videometría litoral de Zarautz.

**Segundo.-** Facultar al Sr. Alcalde para la firma del convenio cuyo texto se transcribe a continuación:

**CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA, Y EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ PARA LA GESTIÓN DE LA ESTACIÓN DE VIDEOMETRÍA LITORAL DE ZARAUTZ**

En Donostia / San Sebastián, a XX de diciembre de 2020

REUNIDOS

De una parte, D. José Ignacio Asensio Bazterra, Diputado Foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Ex-cma. Diputación Foral de Gipuzkoa

De otra parte, D. Xabier Txurruka Fernandez, en calidad de alcalde del Ayuntamiento de Zarautz, en nombre y representación de dicha entidad.

#### INTERVIENEN

Todos en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para el otorgamiento del presente Convenio, y al efecto,

#### EXPONEN

I.- La Diputación Foral de Gipuzkoa, en el ejercicio de sus competencias de carácter subsidiario hacia los ayuntamientos, establecidas en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, viene realizando desde 1985, a través del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, la limpieza y mantenimiento de las 16 playas de Hondarribia, Orío, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba y Mutriku. Al mismo tiempo, colabora económicamente en la limpieza y mantenimiento de las 4 playas de Donostia. Además de esta trayectoria de apoyo a los ayuntamientos en el ejercicio de sus competencias en materia de costas (Ley 22/1988, de Costas; art. 115), el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, en relación con el Plan Estratégico de Gestión 2020-2023, cuenta entre sus objetivos (nº 52) con el de gestionar de forma sostenible las playas y el litoral de Gipuzkoa, para ofrecer a las personas usuarias de las mismas un servicio bajo unos estándares regulares de calidad y seguridad, y en condiciones del máximo respeto a estos espacios naturales. En virtud de ello y en el marco de sus competencias, el Departamento está llevando a cabo una labor de coordinación de diversos aspectos relacionados con las playas y el litoral, fomentando para ello un marco de colaboración con los numerosos agentes que intervienen en la gestión de las mismas.

II.- Asimismo, por Decreto Foral 18/2018, de 29 de mayo, fue aprobada la *Estrategia guipuzcoana de lucha contra el cambio climático 2050-Gipuzkoa Klima 2050*. La estrategia incluye las Líneas de Actuación 3.3 *Integrar el cambio climático en la gestión de playas, estuarios y dunas* y 7.2.3 *Evaluación de la afección del ascenso del nivel del mar y del oleaje sobre las zonas costeras y promover actuaciones para la adaptación*. Ambas líneas de actuación van encaminadas a profundizar en la observación de la evolución de los arenales mediante instrumentos de vigilancia que permitan recopilar la mayor información posible y disponer de series temporales de datos que posibiliten evaluar el impacto del cambio climático (subida del nivel del mar y oleaje extremo) sobre las playas y sobre las zonas costeras en general (espacios urbanos, edificación, infraestructuras viarias e hidráulicas).

III.- Por todo ello, el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas ha decidido incorporar nuevas herramientas de estudio y conocimiento de los arenales que permitan adoptar las decisiones más adecuadas en los respectivos ámbitos de gestión. Para ello ha creado la *Red Foral de Videometría Litoral de Gipuzkoa*, que en la actualidad consta de 9 estaciones. Las 2 primeras, en las playas de Deba y Hondarribia, fueron puestas en marcha merced a sendos pilotajes en 2018. Tras comprobar su buen funcionamiento, se instalaron 6 nuevas estaciones en otras tantas playas (Saturraran en Mutriku, Itzurun y Santiago en Zumaia, Gaztetape y Malkorbe en Getaria, y Antilla en Orío) para finales del mes de marzo de 2019. A estas estaciones se suma la de Ondarbeltz en Mutriku, ejecutada por el Departamento de Infraestructuras Viarias también en 2019, y que de cara a 2020 se incorpora a la red. Todas las estaciones, recogen imágenes que son procesadas e interpretadas por el sistema *KostaSystem* creado por la Fundación AZTI. La explotación de los datos recogidos permite obtener informes periódicos en los diferentes indicadores ya mencionados: de gestión de uso (afluencia de usuarios y ocupación), zonas de potencial peligro por olas y corrientes, así como de la morfología de las playas y de los efectos del cambio climático (superficie de arena seca, e intermareal, y línea de costa).

IV.- Por su parte, el Ayuntamiento de Zarautz, con la colaboración de la Fundación AZTI, puso en marcha en 2010 una estación de videometría litoral para cubrir toda la playa de Zarautz. La explotación de los datos permite también obtener informes periódicos en los indicadores de gestión de afluencia y ocupación, zonas de peligro por olas y corrientes, y morfología de playas y efectos del cambio climático (superficie de arena seca, e intermareal, y línea de costa).

V.- Por todo ello, el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Zarautz, conforme a lo anteriormente expuesto, proceden a formalizar el presente acuerdo de colaboración con arreglo a las siguientes:

#### CLÁUSULAS

##### PRIMERA.- OBJETO

Constituye el objeto del presente Convenio la colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de su Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, y el Ayuntamiento de Zarautz, en la *Gestión de la Estación de Videometría Litoral de la Playa de Zarautz*.

## SEGUNDA.- OBLIGACIONES Y COMPROMISOS DEL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

El Ayuntamiento es el propietario de la estación de videometría litoral de la playa de Zarautz. Se compromete a lo siguiente:

- Garantizar el suministro de energía eléctrica para el normal funcionamiento de la instalación.
- Asegurar la permanente disponibilidad de los terrenos sobre los que se asienta.
- Permitir, facilitar y llevar a cabo las medidas y tramitar los permisos oportunos ante cualquier trabajo que sea necesario realizar en la instalación.

## TERCERA.- OBLIGACIONES Y COMPROMISOS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

En virtud del presente Convenio la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de su Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, se compromete a lo siguiente:

Realizar los trabajos de mantenimiento de las estaciones. El coste estimado de las tareas de mantenimiento es de 4.000€/año. Debido al carácter permanente y tracto sucesivo de dicho mantenimiento, se prevén créditos para el ejercicio 2020 por importe de 4.000 €, quedando los créditos de los restantes ejercicios supeditados a la aprobación de los respectivos presupuestos generales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El gasto correspondiente al ejercicio 2020 se abonará con cargo a la partida presupuestaria, 1.0310.160.212.00.00.2020.

Gestionar la adquisición de los datos de las estaciones de videometría.

Compartir con el Ayuntamiento de Zarautz los informes resultantes de la explotación de datos (afluencia de usuarios y densidad de ocupación de la playa, seguridad en el baño, y evolución morfodinámica del arenal desde el comienzo de la serie de datos de las estaciones).

Plantear la ampliación de los módulos o funcionalidades en las estaciones si se considerara conveniente, en colaboración con la Fundación AZTI.

La estación de videometría litoral de Zarautz se integrará a todos los efectos en la Red Foral de Videometría Litoral de Gipuzkoa, gestionada por el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, junto con el resto de estaciones que la componen.

## CUARTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

Para asegurar la buena marcha del presente Convenio, se crea una Comisión de Seguimiento con las siguientes funciones:

- Realizar el seguimiento de todas aquellas actuaciones que lleven a cabo las partes en el cumplimiento de este Convenio.
- Resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan presentarse.

La Comisión de Seguimiento estará integrada por 2 representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa y 2 representantes del Ayuntamiento de Zarautz.

## QUINTA.- PUBLICIDAD DEL OBJETO DEL CONVENIO Y UTILIZACIÓN DE LOS DATOS

Ambas partes se reconocen el derecho de utilizar los datos, imágenes o informes obtenidos de la estación de videometría

El Ayuntamiento de Zarautz podrá utilizar e incorporar en cualquier soporte que juzgue conveniente los informes obtenidos durante el desarrollo de la actividad, indicando que han sido elaborados por la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con la colaboración, en su caso, de la Fundación AZTI.

## SEXTA.- EFECTOS Y DURACIÓN

Este Convenio se hará efectivo y obligará a las partes intervinientes desde la firma del mismo, y tendrá una duración de 4 años, prorrogable por otro periodo de 4 años, según lo dispuesto en el artículo 49 h) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, salvo que alguna de las partes exprese de forma inequívoca su voluntad de extinguir el Convenio.

En cualquier caso, el convenio obligará a las partes hasta el efectivo cumplimiento de los compromisos adquiridos en virtud del mismo, sin perjuicio de lo dispuesto en la cláusula sexta.



#### SÉPTIMA.- INCUMPLIMIENTOS Y RESOLUCIÓN

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos en alguno de los procesos enumerados no supondrá de manera automática la resolución del Convenio, aunque facultará a la otra parte a exigir su estricto cumplimiento.

Sin embargo, el incumplimiento reiterado por alguna de las partes, de compromisos asumidos en varios procesos, facultará a la otra para exigir su estricto cumplimiento o para solicitar la resolución del Convenio.

#### OCTAVA.- NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO

El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo.

Cada parte interviniente asume únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contrae en virtud del presente Convenio.

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo Contencioso-Administrativo.

Y en prueba de conformidad con lo establecido lo firman los comparecientes en duplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados,

ZARAUZKO ALKATEA /  
EL ALCALDE DE ZARAUTZ

INGURUMENENKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO  
FORU DIPUTATUA /  
EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS  
HIDRÁULICAS

Sin.: / Fdo.: Xabier Txurruka Fernández

Sin.: / Fdo.: José Ignacio Asensio Bazterra

*Para que así conste y surta sus efectos donde proceda extendiendo y firmando la presente con el visto bueno del Sr. Alcalde, en Zarautz a dos de febrero de 2021.*

VºBº  
El Alcalde

La Secretaria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU5ea5c864-4d2e-4777-b6ce-bd3ed517a92f**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910>**